

# Nafarkaria

• ostirala • 2002ko martxoaren 1a


**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Lizarra** • Estellerriko hamahiru artista bildu dituzte erakusketa batean, aurreneko aldiz • 2

**Carlos Peña** • «Nire mugak gainditzeko egiten dut igeri» • 7



1927 eta 1967. urteen artean Vasco Navarro izeneko trenak Lizarra eta Gasteiz arteko bidea egin zuen. Garai batean vasconavarro hitza erruz erabili zen Hego Euskal Herriko erdaran Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako gauza bateratuak izendatzeko. Orain batzuek berpiztu nahi dute hitza, baina ez hasierako esanahi harekin -lau probintziak izendatzeko laburdura-, haiek bascoak eta gu nafarrak garela ongi bereizteko baizik. Trenaren adiera itxuraldatu dute, beraz.



# Vasco Navarro


## trenaren atzerako bidea



Lizarra ●

# Artea bertatik bertara

Estellerriko artisten lanak ikusgai daude Kultur Etxean, hilaren 8a bitartean



Estellerriko hamahiru margolari eta eskultoreen lanak bildu dituzte Fray Diego kultur etxean. ● LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

**XVI.** MENDEKO JAUREGIA lehengoratzek aro berri bat dakar Lizarrako Fray Diego kultur etxean, eta taupada berri horren lekuko, bigarren solairuan paratu duten talde erakusketa. Hilaren 8a bitartean, Estellerriko hamahiru margolari eta eskultoreen arte-lanak daude ikusgai, eskualdean egun artistek jorratzen dituzten bideen erakusleiho.

Bideak askotarikoak dira, pintura tradizioaletik hasi eta abangoardiak izan dituen zirrikituetatik igarota, egungo arte garaikidearen adibideak ikus daitezke: arte abstraktua, instalazioak, grafismoaren eragina duen pintura...

Jesus Sanchez 'Redin', Joaquin Ilundain, Mari Jose Rekalde, Jesus Maria Bea, Andres Santamaria, Pedro Irulegi, Re-

**Kultur Etxea eraberritu ondoren egin den estreinako talde erakusketan, Estellerriko hamahiru artistaren lanak bildu dituzte. Bertan, arte garaikidearen taupadak sumatzen ahal dira.**

tana, Florencio Alonso, Antonio Laita, Juan Maria Sukilbide, Angel Elvira, Carlos Ziriza eta Elba Martinez dira erakusketak bildu dituen artistak. Bakoitzak artelan bat edo bi paratu ditu erakusketan, kasuan kasu, eta orotara 19 artelan daude.

**Aurreneko aldia**

Aurreneko aldia da Estellerriko hainbat artistak batera erakusketa bat egiten dutela. Aurretik, bakarka ikusgai izan dira artista bakoitzaren artelanak, eta duela hiru bat urte sei artista gazteren lanak bildu zituzten Gustavo de

Maeztu museoan. Oraingoa, berriaz, aitzindaria da, eta etorkizunean horrelako ekimenak sustatzeko asmoa iragarri du oraintsu arte Kultura zinegotzia izan den Maria Jose Fernandezek: «Bertako artistak oso sormen memento onean daude, eta, beraz, leku bat eskaini behar diegu beren lana erakuts dezaten». Hitz hauen lekuko gisa, nabarmendu beharra dago erakusketan presente dagoen Florencio Alonso artista ARCON izan berri dela.

Bertako artistek ere ontzat jo dute erakusketaren ekimena. «Oso proiektu polita da», adie-

razi dio Pedro Irulegik NAFARKARIARI. «Egia da bakoitzak modu batean ulertzen dugula artea eta, ondorioz, bide ezberdinak jorratzen ditugula, baina ezberdintasun horretan dago koska. Hortxe dago batera egotearen aberastasuna: erakusketak bakar batean, artearen hainbat adierazpide ikusten ahal direla, alegia».

Artista bakoitzak erabilitako teknika diferentea da: olioia batzuetan, teknika mistoa bertzetan, edo pintura akrilikoa. Euskarria ere diferentea izaten ahal da: egurra, mihisea edo eskultu-

ra, Jesus Mari Bea edo Carlos Zirizaren kasuan; edo ikus-entzunezko instalazioa, Elba Martinez gaztearen kasuan. Azken honek Leopoldo Maria Panero poetaren unibertsoa islatu nahi izan du idazlearen begiradatik abiatuz. «Bere begiek etsipena islatzen dute. Begirada zuri-bel-tzean jaso dut, eta hori oinarritzat hartuta, bere unibertso poetikoaren metafora egin nahi izan dut».

Olerkariaren metafora, paisaiak, ikerketak, egunerokotasuna, alegoriak, ametsak, omenaldiak, joko bisualak, sinboloak... askotariko hizpideak izan dituzte artistek, eta orain denak ikusten ahal dira arratsaldero, 18:30etik 20:30era, Lizarrako Kultur Etxean.

→ Kristina Berasain

muga enea

MIKEL REPARAZ



## Good morning, Afghanistan

Egun atsegina izan ezazue, entzuleok. Paxtun eta dari hizkuntzez errepikatu zuen konplimentua esatariak. Kabul, Europako Komisioko funtzionarioak gorbata estutu zuen ispilu aurrean, eta Estokolmotik ekarritako mueslia gosaldurik txoferrari keinua egin zion. Bulegora. Burkaz estalita emakumeak, hankamotzak eta ahuntzak karriketako putzu beltzen uraz zipriztindu zituen autoak bulegorako bidean. Irratian, berriz, Radio Afghanistan. Autoaren muturretan, ahuntz batek errepidearen alde batetik bestera jauzi egin zuen, hankamotzaren inbiditarako. Good Morning Afghanistan, Europar Batasunak finantziatu irratia saioa, egunero

zure dialean. Robin Williamsen boza zela zin eginen luke funtzionarioak.

Segidan Bob Marley jarri zuten, eta orduan Bruselatik etorri berriak pentsatu zuen bart gauean azido eta opio gehiegi hartu zuela. Saigonen, amerikarrek erre, kiskali, soildutako oihana aurkitu zuen aurrez-aurre, bulegora iritsi aitzin. Europako Komisioren bulegoa, Kabul. The Doors irradian, gerra-helikopteroak zeruan. Eta Vietkong zaharrak, herren, mezkitarako bidean itzulika. Apokalipsia. Kandaharreko marineek ere gustura entzuten dute Mendebaldeko musika irradian. Amerika, Europa, Mendebaldea irratia uhinetan. Kennedy, Johnson

eta Nixonen itzalpean europarrak ere hor baikau-de, behar den lekuan, afganiarrei ere egunonak emateko. Good Morning Afghanistan, Europako Komisiok finantziatu irratia saioa. Estatu Batuek aspaldi ikasi zutena ikasi dugu orain europarrok. Alegia, deus gutxi behar dela hankamotzaren erresuman jaun eta jabe izateko. Horregatik, agian NATOren abioiek Gazteluko plaza edo Mendillorri-zeinek daki— bombardatzen dituztenean jabetuko dira. Good Morning Nafarroa, Europako Komisiok finantziatu saioa, egunero Euskalerrira Irratiaren dialean. Robin Williamsen boza zela zin eginen nuke.

## Leitza ●

Leitzako kultur etxe berria nahiz Etnografia eta Herri Kirol museoko egoitza berria izan zitekeena, ezustean, Guardia Zibilen kuarter berria izanen da, Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiaren ondorioz.

MAXURRENEA IZENENKO ETXEA ikasle egoitza modura erabiltzen zen lehen; hori dela eta, Hezkuntza eta Kultura sailak kudeatzen zuten. Bertan bizi ziren mojak desagertu zirenean, etxea hutsik geratu zen, eta zenbait urtetan etxeari ez zitzaion inolako erabilerarik eman. Hori zela kausa, 1999an, Leitzako Udalak, Maxurrenean kulturagune bat eraikitzeko asmoz, Nafarroako Gobernuari etxea herriari uzteko eskaera igortzea erabaki zuen aho batez.

«Legealdi berria hasi zenean, herriak zituen gabeziak aztertu genituen, eta kultura arloan zenbait hutsune bazirela sumatu genuen. Besteak beste, kultur etxe bat», adierazi du Leitzako alkate Tomás Azpirozek. Bestetik, etxea uzteko baldintzetan, Maxurrenearen erabilerak hezkuntzarekin lotuta egon behar duela dio.

Nafarroako Gobernuak zenbait ordezkarekin hamaika bilera egin ostean, Gobernuak Kultura zuzendari nagusiak Maxurrenea Leitzako Udalari uzteko aldeko txostena egin zuen. Baina Hezkuntza Sailak etxea erabili nahi zuela adierazi zuen. «Guk urtebeteko epea ezarri ge-

# Maxurrenea, kuarter berrirako

Nafarroako Gobernuak etxea Espainiako Barne Ministerioari uztea erabaki du



Espainiako Gobernuari utzi dio Maxurrenea etxea Nafarroako Gobernuak, bertan Guardia Zibilen kuarter berria egiteko. ● JON URBE / ARGAZKI PRESS

nuen benetan erabilera praktiko hori gauzatzen zen edo ez ikusteko», esan du Azpirozek. «Etxea erabiltzen ez zenez, aurtan etxea behin-behinean uzteko eskatu genuen, udaletxeko berritze lanak irauten zuten bitartean udal bulegoak bertan kokatzeko».

### «Irakurketa politikoa»

Nafarroako Gobernuak erantzunarekin bat, sorpresa zen nagusi Leitzako Udalean. Izan ere, udalaren eskaera baztertua erabaki du gobernua eta, gai-

nera, Maxurrenea Espainiako Barne Ministerioari uztea, bertan Guardia Zibilen kuarter berria jartzeko.

«Irakurketa politikoa bat egin behar da honen inguruan», dio Leitzako alkateak. «Nafarroako Gobernuak izugarriko sekretismoz hartu du erabaki hau. Normalean, Gobernuak hartzen dituen erabakiak astelehenetan prentsan eta Interneten agertzen dira, eta guk bertan irakurri ohi ditugu, baina Maxurrenearen inguruko erabakirik inon ez zen ageri. Guk etxea guri uzteko

eskatu dugunean erabili izan dugun argudioa 'etxeari erabilera eskasa' izan da, eta hara non, orain Nafarroako Gobernuak argudio bera erabili duen Barne Ministerioari uzteko». «Erabaki hau udalaren kontratatzat ez ezik, Leitzako herri osoaren kontratatzat hartzen dugu», bukatu du alkateak. Udala osatzen duten alderdi politikoak, UPN izan ezik, helegite bat aurkeztu ahal izateko lanean hasi dira dagoeneko.

→ Estibalitz Ortega

## Nafarroa ●

### Euskaraz mintz@, guraso-haurrak elkarrekin jolasteko

SORTZEN-IKASBATUAZ TALDEAK EUSKARAZ mintz@ izeneko proiektuaren materiala aurkeztu du, haurrekin euskaraz jolastu nahi duten gurasoei zuzenduta. Hogeita hamar kanta CD batean bilduak, eta hamaika joko kantekin lotura dutenak, denek osatzen dute arrakasta handia izan duen proiektu baten azken fasea, programaren arduradunek adierazi dutenez.

Asmoa duela hiru urte hasi zen, Euskal Herri osoko hogeita hamarretik gora ikastetxetan euskarazko betiko jolasak haurren artean zabaltzeko eta atsedendietan ere eus-

karak bere lekua izan zezan lanabesak emateko. Inguru erdalduneko ikastetxeak aukeratu ziren horretarako, hor baitu euskaraz muga handienak hezkuntzara ez ezik beste esparruetara ere zabaltzeko. Proiektuan parte hartu duten Nafarroako ikastetxeak: Iruñeko Amaiur, Axular, San Frantzisko eta Sanduzelai; Barañaingo Alaitz; Burlatako Ermitaberri; eta Irurtzungo Atakondoa.

Astean ordubeteko saioekin, begiraleek hirurehun bat jolas erakutsi zizkieten haurrei, eta gero, ikastetxetan, ikastaroak egin ziren gurasoekin. Orain, esperientziak etxe-

an ere segida izan dezan atera da materiala. Horretarako, noski, aukeraketa egin da. «Irripidea izan da guraso erdaldunek ere esfortzu handirik gabe erabili ahal izateko materiala sortzea» adierazi zuen Sortzen-Ikasbatuaz taldeko kide Rikardo Ederrak asteazkeneko aurkezpenean. Proiektuak 72.120 euroko aurrekontua izan du aurtan, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Orain beste lurraldetako diputazioen eta Eusko Jaurlaritzaren sostengua ere bilatzen ari dira.

→ Alberto Barandiaran



Urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

### Berri laburrak


Astelehen arratsaldean amaren komunari pinturaren bigarren eskua eman nion, eta bukatzerakoan salara joan nintzen bukatua nuela esatera. Ama telebistan ematen ari ziren telenobela bat ikusten ari zen. «Zer?, bukatu duzu?», galdetu zidan. Telebistari begira, baietz erantzun nion. Memento horretan, telenobelako bi gazte kotxe batean sartuta zeuden hizketan. Neskak mutilari ea haur asko izango zituzten galdetzen zion (oso pozik, oso maitemindua), eta mutilak baietz erantzuten zion («nahi duzuna, maitea»), eta neskek besarkatu egiten zuten pozez txoraturik. Horrela zeudela, kamerak mutilaren aurpegia nola tristatzen eta iluntzen zen erakutsi zigun, eta horrexegatik, «ui ui ui, mutil horrek ez du batere maite, gaiztoa da gero!», esan nion amari (adi egoteko), baina amak «neskak buruko minbizi bat du, eta ez diote esan eta ez du luze iraungo», esan zidan (telegrafikoki) oso okertua nembilela agerian utziz.

Gero altxatu eta komunak ea nola ematen zuen ikustera joan zen (eta ni atzetik). «Hor ez duzu errepasatu» esan zidan, eta nik erantzun behar izan nion inork ez dituela besteen etxeko kalefakzioaren tutuen atzealdeak ea pintatuta dauden edo ez ziurtatzeko horrelako ikerketak egiten, eta ongi zeudela, eta atzealdetik pintatzeko pintzel berexi bat erosi beharko nuela (gezurra), eta hau eta bestearekin, «bale, bale» bat atera nion (kostata). Gero etxera joan nintzen leher eginda (ohitura falta).

Asteartean, Gazteluko plazako lur azpian Erdi Aroko musulmanak ehortziak zeudela jakin genuen, eta oso kurioa egin zitzaidan hor agertzen diren gauza guztiak erromatarrek, zeltak, musulmanak, gaztelarrak edo frankoak izan daitezkeelako baina «baskoak» sekula ez. Baskoak, lapur onen antzera, ez dute arrastorik uzten (horrexegatik Madrilgo etakideek erabilitako kotxei sua ematen diete: baskoek ez dutelako arrastorik uzten ahal! «Ezta beraien lurretan ere?», galdetuko didazue. Bada, ezta beraien lurraldeetan ere!).


Asteartean, halaber, Xaxari (katuari) pentsua eta ura hartzeko plastikozko plater berriak erosi nizkion. Alergia arraro baten kontrako neurriak. Gorri-gorriak dira. Usaindu eta bereak egin zituen, berehala ●

**'VASCONAVARRO' HITZA DUTEN ZENBAIT IZEN:**



▲ Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro / Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala

- ▶ Asociación de Esclerosis Lateral Amiotrófica Vasconavarra
- ▶ Asociación Vasco-Navarra de Médicos Homeópatas
- ▶ Asociación Vasco-Navarra de Podólogos



▲ Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría / Euskal Herriko Pediatri Elkarte

- ▶ Sociedad Vasconavarra de Cardiología
- ▶ Sociedad Vasconavarra de Anestesia, Reanimación y Tratamiento del dolor
- ▶ Sociedad Vasco-Navarra de Psiquiatría



▲ Sociedad Vasco-Navarra de Patología Digestiva / Patología Digestiboaren Euskal-Nafarro Bilera

- ▶ Sociedad Vasco-Navarra de Patología Respiratoria
- ▶ Grupo de Estudios Neonatales Vasco-Navarro
- ▶ Real Automóvil Club Vasco Navarro
- ▶ Helvetia Cervantes Vasco Navarra S.A. de Seguros y Reaseguros



- ▶ Quesos La Vasco-Navarra S.A.
- ▶ Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras
- ▶ Vasco Navarro trenbide estua (Lizarr-Gasteiz, 1927-1967)



- ▶ Movimiento Social Republicano - Federación Vasco-Navarra
- ▶ Centro Vasco-Navarro de Valencia
- ▶ Centro Vasco-Navarro Sevilla



Vasco Navarro tren 1967ko abenduaren 31n joan zen azkenegoa aldiz Lizarratik Gasteizera. 'NAVARRA Y EL TREN'

# Haiek baskoak eta gu nafarra

Nafarroako Gobernuak 'vasconavarro' hitza erabili nahi du Nafarroauskadiko hitzaren orde

**Gauza jakina da Euskal Herrian odola egiten dela hitzekin. Hitz bat edo bestea erabiltzeak ondorio latzak izan ditzake. Orain, badirudi, Nafarroako Gobernuak 'vasconavarro' hitzarekin tematu dela, eta azken urteetan 'Euskadiko' izan diren gauzei izena aldatuko diela. Lehenagotik ere erabiltzen zen 'vasconavarro', erruz, gainera, baina ez zuen egungo adiera bereizgarririk.**

TUTERAN OSPATZEKO ZEN IRAGAN OTSAILAREN 10ean Euskadiko Kros Txapelketa. Presio politikoez eragotzi zuten, ordea. Nafarroako Gobernuari ez zitzaion ongi iruditu «Euskadiko txapelketa» nafarroan egitea —nahiz eta beste batzuetan egin izan den—, eta Euskadiko Federazioari proposatu zion izena aldatzeko, eta bi podium bereizi paratzeko; hau da, nafar batek ezin izanen zuten Euskadiko txapela jantzi. Euskadiko Federazioak ezetz erran zuten, eta Euskadikoa Ortuellara eramán. Atsekabez, Nafarroako lasterkariak non parte hartu aukeratu behar izan zuten, Ortuellan edo Tuteran. Ortuellan 50 bat izan ziren, eta Tuteran, 33.

Ika-mikaren zurrunbiloan, Nafarroako egunkari batek Javier Trigo Kirol zuzendariari galdetu zion ea «Euskal Herriko Txapelketa» izena onartuko ote zuten. Ondokoa erantzun zuten UPNko Trigok: «Izen hori izaten ahal zuten txapelketak, baina horretara



Multinazional batek Seguros Vasco Navarra-ren izena ezkatatu duen arren, Iruñeko termometroan oraindik VN siglak ikusten ahal dira. ● JAGOBIA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

rako guziak elkartzten hasi beharko genuke. Euskal Herria zazpi lurraldeek osatzen badute, zergatik hiruk, Euskadikoez, erabakitzen dute non eta zein ararekin egiten diren txapelketak? Zergatik erabakitzen du Euskadiko Federazioak guzien izenean? Txapelketa horrek hasiera batean *vasconavarro* izena baldin bazuen, nork aldatu zion izena?, eta zergatik?». Era berean, otsailaren 19an jakin zen txirindulari afizionatuen aurtengo txapelketaren izen ofizialak *vasconavarro* abizena izanen duela. Ekainean jokatu da, Arizkun. Krosaren iskanbilaren ondotik. Nafarroako Gobernuak eta antolatzaileek erabaki dute *vasconavarro* izena txapelketaren izena. Txapelketa iragarriko duten kartel eta iragarkietan *vasconavarro* izena agertuko da; gaztelaniazko bertsioan, noski. Ikusi beharko da euskarazko bertsiorik izatekotan, zein izen aukeratu ote duten.

Francoren diktaduran ere izenari eutsi zion trenbideak, eta halako goraldi bat izan zuten; estatuko ixtea agindu zuten arte. 1967ko abenduaren 31n, Vasco Navarro trenak bere azken zerbitzua egin zuten. Nievearen iritziz, egun hagitaz zaila da politikoki zuzena den hitz bat aukeratzeko. «Nahiz eta hasierako zentzu ez bereizgarria aldatu duen, *vasconavarro*-k dirudi, momentuz, neutroena; baina, beharbada, hemendik hoge urtera gatazkatsu bilakatu da. Eta beste bat asmatu beharko dugu».

**Vasco Navarro trenbide estua**  
Antza denez, *vasconavarro* hitzak ez dio min handirik egiten Nafarroako Gobernuari; izen neutroa omen da berretako. Izan ere, *vasconavarro* erruz erabiltzen zen beste garai batzuetan Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan gertatzen zena izendatzeko.

Urteetan, Vasco Navarro izeneko trenbide estua izan zen Lizarratik Gasteizera, 70 kilometrokoa. 1882. urtean The Anglo-Vasco-Navarro Limited enpresari beharrezko baimena eman zioten, baina 1919. urtea arte ez ziren eraikitze lanak hasi. Trenbidea 1927ko irailean inauguratu zuten.

Francoren diktaduran ere izenari eutsi zion trenbideak, eta halako goraldi bat izan zuten; estatuko ixtea agindu zuten arte. 1967ko abenduaren 31n, Vasco Navarro trenak bere azken zerbitzua egin zuten.

**Elkargo eta elkarteak**

Lanbide bereko profesionalak biltzen dituzten zenbait elkarte ere urteetan erabiltzen dute *vasconavarro* hitza. Eta erabiltzen segitzen dute (ikus ondoko zerrenda).

Elkargo ofizialei dagokienez, bakarra da Hego Euskal Herrian Arabako, Bizkaiko,

Gipuzkoako eta Nafarroako bazkideak biltzen dituen: arkitektoen elkargoa. 1930ean sortu zen, eta bere baitan Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako ordezkariak batzen ziren. Aipatzekoa da Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala izan dela hasieratik Espainiako elkargoen artean banaketa geografikoa bere horretan mantendu duen bakarra. Eta hala izan da, elkargoaren hitzetan, «EHAEOK nortasun juridiko bakarra badu ere, osakide den ordezkariak bakoitzak bereko ondarea, aurrekontua eta Zuzendaritza Batzordea duelako».

Lanbide elkarteek landara, badago gazta enpresa bat, automobilizaleen klub bat, aseguru etxe bat (nahiz eta multinazional batek izena ezkatatu dion), eta Hego Euskal Herriko aurrezki kutxak batzen dituen federazioa.

**Hitzaren adiera aldaketa**

Javier Zabalza historialariak NAFARKARIARI azaldu dionez, *vasconavarro* izen normala zen XIX. mendean eta XX.aren hasieran; anitzetan erabiltzen zen gaztelaniaz. «Ez beti, baina askotan erabiltzen zen laburdura bezala, baskongadoak eta nafarrak ez esateko», esplikatu du. «Oso normala zen esatea *provincias vasconavarras*, esan beharrean *provincias vascongadas y navarras*. Eta horrek ez zuen ukatzen, nik uste, Nafarroa Euskal Herriaren barruan zegoenik».

«Orduan *vasconavarro* nahiko hitz neutroa zen», segitu du. «Baina orain zentzua aldatu egin zaio. Nik uste dut hitz horrek orain baduela konnotazio politikoa. Ematen du oraino erabilerarekin, *vasconavarro* esaten badugu, nafarrak ez direla euskaldunak».

Dena dela, «gauden-gaudenean», Zabalzari ez zaio gaizki iruditzen *vasconavarro* hitza gaztelaniaz erabiltzea. «Baina inolaz ere ez dago onartzerik euskaraz 'Euskal Herriko eta Nafarroako txirindularien itzulua' eta gisakoak erabiltzea. Horren tradizioak ez dago. Gaztelaniaz egin dezatela nahi dutena, baina euskaraz ez. Bereizketa euskaraz egin nahi duenak, esan dezala *Euskadiko* eta *Nafarroako*; hori nahiko onartuta baitago.

Baina Euskal Herriko eta Nafarroako bereiztea oso gogorra da niretako».

Jose Luis Nieve historialariarendako ere *vasconavarro* hitzaren adiera aldatu egin da. «XIX. mendean erabiltzen zen probintzia baskongadoak eta Nafarroa hitz berean sartzeko. Baina horrekin ez zuten erratan batzuk baskoak zirenik eta besteak nafarrak. Ez zen bereizketa egiten. Orain, berriz, hitzak esanahia hartu du: haiek baskoak eta gu nafarrak».

Nievearen iritziz, egun hagitaz zaila da politikoki zuzena den hitz bat aukeratzeko. «Nahiz eta hasierako zentzu ez bereizgarria aldatu duen, *vasconavarro*-k dirudi, momentuz, neutroena; baina, beharbada, hemendik hoge urtera gatazkatsu bilakatu da. Eta beste bat asmatu beharko dugu».

→ Asier Azpillikueta


## Medikuen elkargoak, ehun urte pasatxo

DUELA HIRUZPALAU URTE, ESPAINIARIKO zenbait mediku elkargok euren fundazioaren urteurrena ospatu zuten. Nafarroan ez ziren data horretaz askorik fidatzen

rieko Udalarai eta Nafarroako Diputazioari.

**Aurrekari vasconavarroa**

Elkargo berria, noski, ez zen ezerezetik sortua. XIX. mendean medikuek ikusi zuten beren lana hobeki egiteko eta medikuntza profesionalen eskubideak defenditzeko, elkartzera zutela onena. Asmo hori oso zabaldua zegoen medikuen artean, eta orduko elkarteek gero elkarrengoa oinarri izan ziren.



Kongresu baten ostean, 1891n, *Colegio Médico-Farmacéutico Vasco-Navarro* izenekoak sortu zuten Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako medikuek; elkargoan, Logroño, Zaragoza, Huesca, Teruel eta Soria Espainiak probintzietako medikuak ere baziren.

Hego Euskal Herriko elkargo haren baitan, 1894an, *Sociedad Vasco-Navarra profesional Médico-Farmacéutica de Socorros* sortu zuten, herrietako medikuen interesen defenditzeko.

Elkargoa, 1892an, *La Región Médico-Farmacéutica Vasco-Navarra* izenburuko hamabostekaria argitaratzen hasi zen.

1907 urtea arte 263 zenbaki argitaratu zituzten. Baina, arestian erran bezala, 1898an Espainiako Gobernuak dekretu bat egin zuten Espainiako probintzia bakoitzean mediku elkargo bat sor zedin. Gauzak horrela, elkargo *vasconavarrotik* Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala sortu zen, 1899an.

1892an, *La Región Médico-Farmacéutica Vasco-Navarra* izenburuko hamabostekaria argitaratzen hasi zen. 1907 urtea arte 263 zenbaki argitaratu zituzten.

Medikuen heziketa antolatzeko beharrak bultzatu zuten Espainiako Gobernuak medikuen elkargoen osaketa arautzen zuten dekretua egitera. 1898ko apirillean izan zen hura. Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala urtebete geroago sortu zuten, eta halaxe jakinarazi zioten Iru-



**Izenburua:** 'Historia del ilustre Colegio Oficial de Médicos de Navarra (1899-2000)'.  
**Egilea:** María Dolores Martínez Arze.  
**Argitaratzailea:** Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala.  
**Orrialdeak:** 464.

**Tirada:** 3.700 ale.

**Sinopsia:** Nafarroako medikuen elkargoaren aurrekariak, fundazioa eta garapena. Medikuntzaren historia munduan eta Nafarroan. Nafarroako izen handiko medikuak. Hainbat pasadizo eta bitxikeria.

**Izen handiko medikuak**  
Astlehenean aurkeztu zuten liburua bigarren atalean, munduko eta Nafarroako medikuntzaren historia izen egiten dute. Azkenik, medikuntza arloan Nafarroa beti «Europako batez besteko mailatik goiti» dagoen usteari jarraiki, liburuaren hirugarren atala Nafarroako izen handiko medikuei eskaini diete: Miguel Servet, Juan Huarte San Juan, Nicasio Landa, Alejandro San Martín Satrustegi, Santiago Ramon y Cajal eta Antonio Simonena Zabalegi.

# Tripetako mina

## Erraiak nahastuta.

Monte Carloko zerbitzaria, jabea, Samuel, haserretu zait. Joan den astean tabernako komunak aipatu nituen zutabe honetan bertan, haieran pintadak zeudela azaldu nuen, ez nuen beste datu gehigarrikerik erantsi, eta iruditzen zaio gauzak horrela irakurleak Monte Carloko komunaren irudi okerra jaso duela, komun ilunak, zabarrak, zikinak direla pentsa dezakeela, Autobus Geltokiko garai bateko komunaren igualak direla, alegia. Samuel ez da euskalduna, ezin du zutabe hau irakurri, baina Gerardo mus bikotekide ikurrina baino baskoagoak itzuli dio hautsak harrotzearen, bazterrak nahastearren: joan den egunean aurkaririk ez genduela eta musean buruz buru aritu ginen, partida erabakigarria erregerik zein zaldirik ez nuela handira hordagoa jöz irabazi nion, eta ez dit barkatzen, pipertuta dabil —Gerardo: porrotak jasateko bizkar zabalik ez dutenen bidea zein den argi utzi du **Jose Ignacio Labianok**—.

Samuel bereziki haserre dabil duela zenbait aste taberna eraberritzeko asmoa azaldu zigularik, Monte Carloren Eraberritzearen Aurkako Hiritar Plataforma, MCEAHP —akronimoak transizioan gurean horren ohikoak ziren zatiketa horietako batena dirudi: mugimendu komunistako eszizio aurrerakoi

herrikoi promaoista, esaterako—, osatu nuelako, eta hain zuzen ere horregatik ez dituelako oraindik komunak zaharberritu, pintadak ezabatu.


**Nahasmendua libratu.** Batetik, plataforma eratu nuen **Nuria Iturriagaitia** eledun erregionalista orbanik gabeak hain justu garai hartan gogor egin zuelako «gibelean interes politiko ustelak» dituzten Foru Erkidegoko koordinakunde ugariaren kontra: Samuel UPNzale samarra da, edo, hobeto adie-

● ASIER AZPILIKUETA



Monte Carlo tabernako komuna.

● JOSE HUESCA / EFE



Jaime Ignacio del Burgo, politikari erregionalista.

sartu nahi izan nion. Baina bestetik, plataforma sortu nuen Monte Carlo zaharberritzea tabernari nortasuna ebastea dela iruditzen zaidalako, zinez, bihotzez.

## Kateari eragin.

Azken urteotan Lehen Zabalguneko tabernak izurritea pairatzen ari dira: hasieran bakan batzuk izan ziren, baina orain gehien-gehienak dira. Soilik Monte Carlo San Remo, Abrego eta beste bakarren bat geratzen da kutsatzeko, betiko estiloan tinko. Batek daki zer arkitekto, delineante, estilista gupidagaberen gidaritzapean —**Yolanda Barcina** alkate andere txit etsituaren gertuko baten bat, akaso— taberno betiko lurrina, zaporea, irudia, arima lapurtzen dizkiete Guggenheim museo txikiak bilakatzeko:

guztia titanio, aluminio, kaka. Kaka aipatzen dudala, argi gera dadila betiko estiloaren, arkitekturaren, komunaren defendatzaile sutsu izanagatik ere, horrek guztiak ez duela esan nahi —Gerardo, argi utzizu Samueli— Monte Carloko komunek ez dutenik garbiketa sakon baten beharrik, eufemismoak bazterrean utzita, zotal pixka baten beharrik. Oraintxe jabetu naiz komun zaharrei eskaintako zutabe honetan politikari erregionalistak besterik ez ditudala aipatu...



## panpilonia zirkus

### «Goleadaaaa!»

Garai bateko saltzaileek oihu egiten zuten, saltzaile ibiltariak, batez ere. Horrela, saskiak, lokarriak, hortxata, kokoak, jostorrazak, txoriak, **Calendario zaragozanoak** eta bertze saltzen zituzten. Konponzaileek ere bide bera erabiltzen zuten euren abileziak jakinarazteko. Hiria, jakina, isilagoa zen eta karrika mehar haieran oihuz adierazitako hitz guztiak aise sartzen ziren sukalderraino.

Gaur egun, entzuten den soinu bakarra zorroztailearena da. Garai batean, oihu ere egiten zuten: «**Afiladooor...**», baina orain, bere aho-tresna tarteka jotzearekin konformatzen da. Soinu berezia da, entzun orduko zorroztailearen irudia gogorra ekartzen diguna. San Anton karrika zeharkatu zuen azkena Leongo mendialdekoa zen, gizon adintsua, motoa eskuekin

bultzatzen ari zena. Atzeko aldean, parri-lla gainean, zorroztarria, uhal baten bidez atzeko-gurpilari lotua.

Itsu kupoi saltzaileek ere utzi egin diote oihu egiteari. Nonahi, «**los cuarenta iguales para hoy**» entzuten zen, eta oihartzun gisako batek «**para hoy-para hoy**» errepikatzen zuten. Ahotsari indar handia ematen zion San Nikolas plazan, Vinos y Licores Murillo dendaren ondoan egoten zena. Oihua botatzean, gainera, esku artean zerabilen makila zuri luzearekin pareta ondoko trafiko-seinalea astintzen zuten, ederki astindu ere, seinalearen postea koskatu arte.

Arratsalde apaletik aitzinera, Bigarren Zabalgunetik zetozen oihu batzuk ere entzuten ziren. Izan ere, Roncalesak autobus-geltokiraino ekartzen zuten Donostia

● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS



Kabina barruan ez dira kupoi saltzaileen oihuak entzuten.

aldean argitara ematen zen arratsaldeko egunkaria. Prentsa-saltzaileek huraxe hartu eta lau mugetara barreiatzen ziren, lau haizeetara oihu eginez: «**Unidad. Diario de la tarde. Unidaaad**». Oihuak Alde Zaharrera hurbiltzen ziren, San Nikolas eta Comedias karriken arteko kantoian

## Enrike Diez de Ultzurrun

pausatu arte. Bidegurutze jendetsu horretara iritsita, saltzaile elbarriak hanka motza zurezko aulki baten gainean paratzen zuten. Zenbaitetan, Arana armadaren ondoan, eta, beste batzuetan, aldiz, aurrez aurre zegoen kortse-dendaren aldamenaren. Astelehenetan, kirol egunkaria ere iristen zen: «**Unidad. Norte Deportivo. Unidaaad**».

Izkina horretatik hurbil, igande ilunabarrean ere bertzerik entzuten zen. Oihularia gizon beraurreko beltza zen, bisera buruan, makila eskuan. Buruz ez zebilen ongi eta gazte koadrilek zirikatzen zuten. Zirikadak zirikada, berak lana egoki egiten zuten: «**Goleadaaaa. Goleada de hoy. Goleadaaaa**», futbol partidak bukatu bezain laster karrikan zegoen orri bakarrek argitalpena, alegia. Izengoitiz ere **Goleada** zen.

# Carlos Peña

IGERILARIA

## «Nire mugak gainditzeko egiten dut igeri»

**P**OZIK DA IGERILARIA EGINDA-koarekin. Bederatzi ordu eta erdi behar izan zituen Logroñotik Lodosara ailegatzeko. Orain, Venezuelarako bidaia prestatzen ari da, Maracaibo lakua zeharkatzeko. Asmo horretaz eta bestez mintzatu zaigu.

### ■ Zer moduz igandean?

Ongi, dena oso ongi ateratzen. Kirol arloan, ez nuen arazo handirik izan. Azken hiru orduetan hotza izan nuen, eta aleta bat galdu nuen Mendabian, baina ez zen deus larrik gertatu. Ongi bukatu nuen, eta pozik.

### ■ Igandeko proban kirolak eta aldarrikapenak bat egin zuten.

Bai. Los Arcosen zabortegia egin nahi dute, eta inguruko jendea kontra dago. Plataforma osatu dute, eta haiengana jo nuen zerbait egin nahi nuela esateko. Logroñotik Lodosara Ebrotik igeri joateko asmoa azaldu nien, eta pozik hartu zuten. Jendetza bildu zen igandean, 7.000 lagun inguru. Egun polita izan zen.

### ■ Igandekoaz gain, beste hainbat proba ere egin duzu Ebron: Logroñotik Zaragozara, ibaia oso osorik zeharkatu duzu, 927 kilometroak... Ongi ezagutuko duzu, ezta?

Bai, nahiko ongi. Ebron entrenatzen naiz, gainera, etxe ondolan baitaukat. Ia egunero ibiltzen naiz Ebron, lau, bost edo sei or-



● EGUNKARIA

**Joan den igandean Logroñotik Lodosara joan zen Carlos Peña, Ebrotik igerian. Sekulako markak egin ditu kirolari gipuzkoarrak, beti bizkar igeriketan; joan den astekoan, baina, aldarrikapena uztartu zen kirolarekin, Los Arcosen jarri nahi duten zabortegiaren kontra.**

duz. Orain hotz samar dago, eta nahiko zikina, gainera. Nahiko nuke garbiago egotea, Ebro eta gainerako ibai guztiak.

### ■ 1989. urtean egin ze-

### nuen lehen igerialdia, Ebron, hain zuzen ere. Nola hasi zinen?

Nik atletismoa egiten nuen ordura arte. Tolosako taldean aritzen nintzen; hamar urtez ibili nintzen lehiatzen. Biziki gustuko nuen atletismoa, oso serio hartzen nuen, eta marka onak egiten nituen. 1989. urtean, ordea, arazoak izan nituen. Iñaki Arratibel nire medikuak hamaika proba egin zizkidan eta ez zidan deus aurkitu, baina ez nuen ongi. Atsedean hartzeko esan zidan, gehiegi entrenatu nintzelako. Lauzprobost hilabete egon nintzen deus egin gabe, baina kirola egiteko beharra nuen, eta igeri egiten hasi nintzen.

### ■ Sekulako markak lortu dituzu zure igerialdien bidez; zerk bultzatzen zaitu horrelakoak egitera, zein da zure asmoa?

Nire asmo bakarra da nire

### soslaia

Lodosan bizi baina Tolosan jaioa da Carlos Peña, 1965. urteko uztailan. Atletismoaren bidetik hasi zen kirola egiten, jaioterriko taldean. Marka politak lortu zituen, baina 1989. urtean utzi egin behar izan zuen.

Gehiegizko entrenamenduek nekaneke eginda utzi zuten Peñaren gorputza, eta atletismoa utzi ondoren, igeri egiten hasi zen. Iñaki Arratibel bere sendagilearen aholkuak kontrako hitzik esan gabe jarraitzen ditu, sasoi fisiko eta psikologikorik onenean egoteko.

Hamaika igerialdi egin ditu mundu osoan: Bosnian, Neretva ibaian; Eskoziako Ness aintziran; Espainiako Sella ibaian; Magallanes itsasartean, Txilen; Sil, Ebro eta Miño ibaietan... eta beste hamaika egiteko prest da.

Ez, oso laguntza gutxi jasotzen dut. Nire babesle bakarra Cressi-sub da, etxe horrek ematen baitizkit neoprenozko jantziak. Gainerakoa nire poltsikotik jartzen dut. Nire hurrengo igerialdia Venezuelan egin nahi dut, maiatz aldera, eta badirudi herri horretan Espainiak duen enbaxadari proiektua gustatu zaiola eta laguntzeko prest dela. Ikusiko dugu.

### ■ Venezuelan zer egingen duzu?

Maracaibo lakuan igeri egin nahi dut. 200 kilometro zabal da lekuri zabalenean. Alde batean petrolio plataforma ugari dago, eta nik beste aldetik egingen dut igerialdia. Ez dut lerro zuzena egingen, beraz, 250 bat kilometro egingen ditut. Zortzi bat egun beharko ditut, eguraldiaren arabera.

### ■ Horrelako igerialdi bat egiteko nola prestatzen zara?

Egunero entrenatzen naiz, goizez eta arratsalde, ibaian, kiroldegian. Iñaki Arratibelek analisiak egiten dizkit, une oro ongi nagoela ziurtatzeko, eta dieta ere egiten du, ez loditzeko.

### ■ Ahalegin fisiko handia eskatzen duen kirola dela argi dago; eta arriskurik badu?

Bai, badu. Ibaietan zurrunbioloak eta ur-lasterrak dira arriskutsuenak, eta, lakuetan, berriz, haizea. Titicaca lakuan, adibidez, bi metroko olatuetan egin behar izan nuen igeri. Lakuetan, gainera, paisaia beti berraz denez, monotoniak nekatu egiten zaitu. Itsasoan ere arrisku asko aurki dezakezu: haizea, olatuak eta animaliak. Nik marrazoak izan ditut ondoan. Unerik larriena Bosnian pasatu nuen, Neretva ibaian. Ibaieretzetan minak baziren, eta uretan hildakoen gorpuak egon zitezkeela esan zidaten. Halako batean, igeri egiten ari nintzela, ibaian zen burdina puska batekin gorputz erdia lotuta gelditu zitzaidan. Atera ahal izan nuen, zorionez. Ness lakuan ere, Eskozian, beldur handia pasatu nuen. Ez dut uste munstrorik dagoenik, baina jendeari entzun ondoren, ez zen erraza izan uretan sartzea.



● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

«Okerren Bosniako ibai batean pasatu nuen; ibaiertzetan minak zeuden, eta uretan hildakoak egon zitezkeela esan zidaten. Burdina batean gorputz erdia lotuta gelditu zitzaidan»

→ Ederne Elizondo



## Nafar Kronika

Martxelo Sotes

### Pompaelo

Iruñea erabat erromatarra izan zen garai batean. Esaldi potoloa, e? Kontuz, bada, horrelako baieztapen pisutsu horiekin (astun horiekin), normalean ez baitute ñabardura «arinendako» tarterik uzten. Nolabait esatearren, egun «Iruñea erabat espainola da» edo «Iruñea erabat euskalduna da» esatea bezain faltsua izanen litzateke. Orain artean, ordea, ezin izan da horrelako sententziarik esan, eta ez da Nafarroan esaldi potoloen maitaleak ez ditugulako izan. Beste bi arrazoi daude. Baskoiaik euren txima luzeak larruzko xingolaz hartuta zeramaten gizaseme-alabak omen ziren, puruak, garbiak, latinak kutsatu gabeak, eta erromatarrek sekula ez zituzten menperatu. Horixe zioen bederen historiografia erromantiko moduko batek. Historialari ofizialistek, aitzitik, *Saltus* eta *Ager* horien berri eman digute urteetan. *Ager* erromatarren menpe gelditu bazen ere, *Saltus* hura ez omen zitzairen erromatarrei batere deigarri iruditu eta han utzi zituzten baskoiaik, bake santuan, urtxintxak oihanean bezalaxe, jauzika.

Hara non, eta Iruñeko erdi-erdian pisuzko arrasto erromatarrek aurkitu dituzte. Ñabardurak zehazteko tenorea heldu da. Katedralaren azpian tenplu erromatarra aurkitu omen zuten. Honek ziurrenik Maria Angeles Mezkitzen, Nafarroako Museoa-aren zuzendari ohiaren, beldurrak eraginen zituen, Erromatartzearen historialari ofizialista izan delako betidanik. Baina bizitza osoko tesia aldatzera derrigortu duena Gazteluko plazako aurkikuntzak izan dira, ditxosozko bainuetxea barne. Ez da harritzekoa bainuak aurkitu izana, ikastolan azaldu ziguten: nonbaitetik etorriko baitzen Mañueta kalearen izena.

Akaso orduko Iruñea, orduko Pompaelo ez zen hiri handia izanen; ez zen Emerita eta Caesar bezain *Augusta* izanen (egungo Merida eta Zaragoza, hurrenez hurren), baina Runa gaineko ordokitxoan zabalera polita (katedraletik Gazteluko plazaraino-koa bederen) izan zuen hiria izan zen, zalantzarik gabe. Eta, portzierto, euskarak eta latinak elkarrekin eman zuten denbora luzez, elkar kutsatzen, elkar aberasten. Gaztelaniaz egiten dutenek eman diote minik gehien euskarari eta ez latindunek.

Hiri bati nortasun gehien ematen diona bere alde zaharra izaten da. Noski, Iruñeko Udalean aski konformatzen dira sanfeminek ematen diguten izenarekin, eta enegarren aldiz aukera polita galdu dugu gure hiria ezagunagoa, bisitagarriagoa, aberatsagoa izan dadin. Noiz arte jarraituko dute hiria despertsonalizatzen? Noiz berriztuko dituzte, garrantzian eta hedaduran, Europako bigarren gotorleku eta harresi taldea direnak? *Quo usque tandem Barcina abutere patientia nostra?*

## gure aukerak

### MUSIKA

- **Ibero:** Doctor Robert taldeak The Beatlesen doinuak eramannen ditu bihar, 22:00etan, Atostarra etxera.
- **Bera:** Onddo eta Zioren taldeek joko dute bihar kultur etxean, 22:30etan.
- **Lizarr:** RIP eta Iskanbila taldeek kontzertua emanen dute bihar gaztetxean, 23:00etan.
- **Larraga:** El Color de la Duda taldeak Ibiza tabernan joko du bihar, gaueko hamabietatik aurrera.

### BERTSOLARIAK

- **Berriozar:** Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolariekin, afaria egingen dute gaur, 21:30ean, Zulo Alai elkartearen. Txartelak Goaz eta Herria tabernetan eta euskaltegian (948-300602) dira salgai.
- **Altsasu:** Bihar, 21:30ean, Berririk elkartearen: Iñigo Olaetxea, Aritz Saragueta, Mikel Altzuart eta Eneko Lazkoz.
- **Zugarramurdi:** Bihar, 21:30ean, pilotalekuko jatetxean: Bittor Elizagoien, Joxema Leitza, Julen Zelaieta eta Josetxo Etxenike.

### ANTZERKIA

► **Bera:** Igandean, Lamixine BAT taldeak *Ahatetxo itsusia* ipuinaren bertsio libre eskainiko du 18:00etan, kultur etxean.

### HITZALDIA

- **Altsasu:** Txuri Olo eta Mikel Azkunek Argentinako egoerari buruzko hitzaldia emanen dute gaur Gure Etxean, 19:30ean.
- **Bera:** *Bidaia bat liburu* eta zikloaren baitan, Harkaitz Cano idazleak *Piano gainean gosaltzen* bere azken liburua aurkeztuko du gaur, 19:30ean, kultur etxean.

- **Elizondo:** Erdizko harrobiari buruzko batzar irekia egingen da gaur Arizkunenean, 20:00etan.
- **Iruñea:** Asteazkenean, Xamar idazlea euskararen ekologiari ariko da 10:30ean, Campion euskaltegian.
- **Iruñea:** Asteazkenean, Sabino Cuadra Lasarte Porto Alegrek Foroan ikusitakoek solastatuko da Zaldiko Maldikon, 20:00etan.
- **Berriozar:** Ostegunean, Xabier Olarra itzultzaileak *Uzta gorria* liburuaz hitz egingen du liburutegian, 19:30ean.

### ZINEMA

- **Iruñea:** Gaur, Karrikiriren zinemaldiaren barnean, *El Bola* filma emanen dute euskaraz Golem-Baiona zinematokietan, 20:30ean.

### IKASTAROAK

- **Iruñea:** Askagintzak, droga-menpekotasunari aurre egiteko herri erakundeak, sexualitate ikastaroa antolatu du martxoko ostegunetarako. Izen ematea eta informazioa, 948-133918 telefonoan.

### ERAKUSKETAK

- **Zizur Nagusia:** Tony Grady artistaren *Guernica flexia*, *Picasso gogoan eta eskuetan* erakusketa kultur etxean izanen da hilaren 10a arte, lanegunetan 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.
- **Atarrabia:** Olga Izcoren *Tunez* argazki erakusketa kultur etxean ikusten ahal da hilaren 15a arte, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 21:00etara.

### BESTELAKOAK

- **Astiz:** Gazteriaren Kontseiluak

droga-menpekotasunaren inguruko gazte topaketak egingen ditu martxoaren 8tik 10era, Haizea aterpean. Izena emateko, deitu 948-2348 telefonora.

► **Atarrabia:** Arbolaren Eguna

ospatuko dute bihar Ribed parkean: murru baten margotzea (10:30); txokolate jatea (11:00); zuhaitzen landatzea (11:30); kilikiak eta Zintzarri txaranga (12:15).

## Asteko erakusketa



EGUNKARIA

### Artzai

**Zer:** Jose Mari Pastor 'Artzai' margolariaren olio eta akuarela lanak.  
**Non:** Mutilagoitiko kultur etxea.  
**Noiz arte:** Martxoaren 3a arte.  
**Ordutegia:** Gaur 18:00etatik 21:00etara, bihar 19:00etatik 21:00etara eta igandean 12:00etatik 14:00etara.